

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN  
2025EKO UZTAILAREN 23AREN  
EZOHIKO BILERAREN AKTA**

2025eko uztailaren 23an, 09:00etan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da modu ez-presentzialean. Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidenteak deituta, honako kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua eta presidentea; **Enrique Peiró Callizo jauna**, Osasuneko sailburuordea; **Miren Lorea Bilbao Artetxe andrea**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; **José Enrique Corchón Álvarez jauna**, Eusko Jaurlaritzaren Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**, Aurrekontuetako zuzendaria.

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, bertaratuek osoko bilkura eratu dute, kontseiluburuak deitutako bilkura egiteko eta alde zuzenetik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetan parte hartu du, kontseiluburuaren baimenarekin, ente publikoko ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

## GAI-ZERRENDA

**LEHENENGOA. – Osakidetzaren 2025-2028 aldirako Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren erabaki-proposamena aurkeztea, Administrazio Kontseiluak onar dezan.**

Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2025 – 2028) oinarrizko arau-esparrua berdintasun-legeek osatzen dute: ***Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua (2023/03/27ko EHAA, 60. zk.) eta (2023/04/14ko BOE, 89. zk.),*** zeinak indargabetu egiten baitu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea; eta ***Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa (2007ko martxoaren 23ko BOE, 71. zk.)***. Horiek zehazten dituzte administrazio publikoen jardura gidatu behar duten printzipioak eta jarraibideak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa bermatzeko.

Plan honen edukia berdintasunerako legeen aginduetatik abiatzen da. Oinarrizko arau-esparruaz gain, II. Planak ***EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia*** hartzen du elementu inspiratzaile gisa, eta haren jarraibideak betetzen ditu.

Osakidetzak, enpresa publikoa denez, aipatutako artikuluetan ezarritako betebeharrak bete behar ditu, herritarrei zuzendutako jarduerak eta politikak arautzen dituztenak, baina, gainera, aipatutako legeek barne eremuan enpresen berdintasuna bultzatzea ere aurreikusten dute. Hau da, langileei zuzendutako jardura espezifikoak, enpresa publikoek zein pribatuek garatu behar dituztenak, hau da, "Barneko berdintasun-planak" edo "enpresa-planak".

Ildo horretan, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrienak (2019ko martxoaren 7ko BOE, 57. zk.), 3/2007 Lege Organikoa aldatzen duenak, 50 langiletik gorako plantillako enpresa guztiek berdintasun-plan bat izateko betebeharra ezartzen du:

Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2025 – 2028) helburua da Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planarekin (2021-2024) berdintasun-politiketan lortutako aurrerapenak sendotzea; bai eta berdintasunaren arloan indarrean dagoen legeria betetzen dela eta esparru estrategiko korporatibo berriekin bat datozela bermatzea ere, bai barne-eremuan, bai enpresa-planean, bai kanpo-eremurako berdintasun-jarduketetan, hau da, jardura-eremu sektorialari dagokionean.

Horregatik, Osakidetza Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Plana (2025-2028) onartu behar da, izapide guztiak bete ondoren.

**ERABAKIA:** Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako II. Planaren proposamena.

**BIGARRENA.** – Erabaki-proposamenak, Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzaren zenbait gora jotzeko errekurtsori buruzkoak, Egonkortzeko EPEko eta 2020-21-22ko EPEko izangaien behin betiko zerrendari, destinoen esleipenari eta izendapenaren argitaratzeari buruzkoak; eta, hala badagokio, horiek onartzea.

Guztira, 4 erabaki-proposamen aurkeztu dira:

- Gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten aurka (zeinaren bidez mediku kategorian -familiako mediku lanpostu funtzionala- hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta 2020-21-22ko EPEko destinoen esleipena argitaratu baitziren), errekurtsogilea baztertuta geratu baitzen, nazionalitatea ez betetzeagatik.

Gora jotzeko errekurtsio hori **onetsi** behar da, egiaztatu baita hautagaiak Alemaniako nazionalitatea zuela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

- Gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten aurka (zeinaren bidez mediku kategorian -familiako mediku lanpostu funtzionala- hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta 2020-21-22ko EPEko destinoen esleipena argitaratu baitziren), errekurtsogilea ez baitzen destino-esleipenen zerrendan azaltzen, nahiz eta destinoa aukeratu izan.

Gora jotzeko errekurtsio hori **onetsi** egin behar da; izan ere, gora jotzeko errekurtsioaren xede den ebazpenaren I. eranskinean azaldu behar da dagokion destinoaren esleipendun gisa, izangaien puntuazio-sailkapenaren eta errekurtsogileak berak egindako destino-aukeraketaren arabera.

- Gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten aurka (zeinaren bidez argitaratu baitzen Egonkortzeko EPEko lehiaketa sisteman hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen

esleipena, dietetikako teknikari espezialista kategorian), errekurtsogileak eskatzen baitu prestakuntzaren atalean puntuazio handiagoa ematea.

Gora jotzeko errekurtsorik hori **partzialki onetsi** behar da; izan ere, Epaimahaia bildu ondoren, 0,5 puntu gehiago ematea erabaki da prestakuntzaren atalean. Hala, 10,5000 puntu izatetik 11,00 puntu izatera igaro da.

- Gora jotzeko 2 errekurtsorik aurkeztu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka (zeinen bidez argitaratu baitziren Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sisteman eta Egonkortzeko EPEko lehiaketa-oposizioko sisteman hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, errediodiagnostikoko FEM kategorian), errekurtsogileak eskatzen baitu lan-esperientziaren eta prestakuntzaren ataletan puntuazio handiagoa ematea.

Errekurtsorik horiek metatu egiten dira eta **onetsi** egin behar dira; izan ere, egiaztatu da epearen barruan eta behar bezala alegatu direla erreklamaturako zerbitzuak, eta, beraz, erreklamaturako puntuazioan baloratu behar direla. Era berean, prestakuntzaren atalari dagokionez, epaimahai kalifikatzailea bildu ondoren, jakinarazi da bidezkoa dela errekurtsoa baiestea eta prestakuntzan eskatutako puntuazioa ematea.

**ERABAKIA:** Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onartu dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

#### **HIRUGARRENA. – Kargu-uzteen eta izendapenen proposamena.**

Lehenengoa.– Erabaki da Susana López Altuna andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zuzendari nagusi kargutik kentzea, 2025eko uztailaren 23ko lanaldia amaitzean, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Lehenengoa.– Erabaki da Maite Martínez de Albéniz Zabaleta andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko Asistentzia Sanitarioko zuzendari kargutik kentzea, 2025eko uztailaren 23ko lanaldia amaitzean, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki da Miren Lorea Bilbao Arteché andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko zuzendari nagusi. 2025eko uztailaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

**ERABAKIA:** Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

**LAUGARRENA. – Informazioa eskaerak eta galderak.**

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2025eko uztailaren 23ko 09:30ean.



**Izpta.- Maiteder Mielgo Rubio**  
Idazkaria



**Izpta.- Alberto Martínez Ruiz**  
Kontseiluburua  
Osasun Sailburua  
O.E.

